

HEZKIDETZAREN MARKO LEGALA. HEZKIDETZA EAE-N.

Nire esparrua **hezkuntza formalean** kokatzen da eta ariketa praktikoa honetan hezkuntza formalaren inguruko hausnarketa egingo dut. Dena den, askotan esparru formala eta ez-formala bereizten ditugu eta helburu berdinak izan arren, hau da, neska eta mutilak aukera berdintasunean eta hezkidetzan hezteko helburua izan arren, esparruak estankoa eta urrazinak bihurtzen ditugu, ondorioz ez ditugu ez, baliabideak, espazioak ezta ekintzak konpartitzen. Auzo/herrietan ezinbestekoa da eskola komunitateaz gain bertako eragile sozialekin elkarlana sustatzea, jendartean eraldaketak gauzatzeko asmoa baldin badugu behintzat. Idea hau azpimarratzea oso garrantzitsua iruditzen zait eta naiz eta ikastetxeetan lan egin, gure inguru hurbileko bestelako agenteak aintzat hartu beharko genituzke, burutzen ditugun ekimen ezberdinetan.

Historian zehar hezkuntza sistema garatzen joan da eta momentu ezberdinak eta eskola eredu ezberdinak (rol bakoitzarentzako eskola, eskola mixtoa eta eskola hezkidetzalea) egon dira. Lege testuetan formalki onartzen bada ere hezkuntza hezkidetzalea izan behar dela, aitzitik, praktikan eta eraginkortasunean, ikusiko dugun bezala, gaur egun eskola mistoa dirau, praktikan eskola ez baita oraindik hezkidetzalea.

Euskal-Herriari dagokionez, ezin dugu ahaztu estatu espainoleko legediak aplikatu zaizkigula, nahiz eta askotan EAEn estatuko beste erkidego autonomikoekin hainbat aspektuetan edo elementuetan ñabardurak izan. Hezkidetzaren gaia ulertzeko ezinbesteko iruditzen zait historikoki hezkuntza sisteman emakumezkoen partaidetzaren bilakaera kontutan izatea.

Gaur egungo hezkuntza sistemaren oinarriak European eraikitzen hasten dira XVIII. garren mendearen erdialdean. XX. garren mendeko lehen erdialdean, Estatu Espainolean emakumezkoak Lehen Hezkuntza eta Hezkuntza Ertainean txertatzen joaten dira hezkuntza sisteman, neska eta mutilei curriculum ezberdinak eskainiz. 1970. garren urtean, Vilar Palasi legearen ondorioz, eskola mixto publikoak sortzen dira, baina ez da derrigorrezkoa bilakatzen diru publikoa jasotzen duten ikastetxeetan hezkuntza mixtoa 1985 arte.

Hasierako ohar hauek eta gero jarraian laburki gure hezkuntza sisteman eta Erkidegoan egondako lege ezberdinen gako nagusiak aipatuko ditut:

1990ean ezarritako LOGSE legearekin beste garai bat hasten da. Lege honen hitzaurrean Hezkuntzaren printzipioetako bat sexuen arteko berdintasuna dela aitortzen da, eta printzipio hori zeharlerroka ezarriko dela. Lehenengo aldiz jasotzen da eremu honetan, hezkuntzan, sexuen arteko berdintasuna, baina adierazpen formal horrek ez du eskolako jardunean eta eskola helburuetan islada praktikorik izan. Izan ere, berdintasuna eraginkorra lortze aldera ez da egon planifikazioarik; ez da ez iraskalegoa trebatu ezta sensibilizatu eta

ez da ikas-komunitatean gaia landu, besteak beste. Hortaz, irakasleen eskuetan utzi da, horien motibazio eta borondate onean.

LOGSE legearen ostean indarrean sartu diren estatu zein autonomia-erkidegoko araudietan hezkuntzan sexu berdintasuna aitortzen da; baita indarkeriarena aurkako legeetan eta berdintasun legeetan (estatu zein autonomia-erkidegoko mailakoak).

Hezkidetzaren aipamenak adierazpen atalean ez ezik ikastetxeen antolakuntza eta eskola-bizitzaren alorrean ere xedatzen dira. Araudi honi esker hezkidetzaren kontzeptu bera hezkuntza- politiketan formalki barneratu da, horrek haurren, nesken eta mutilak, berdintasun printzipioan oinarritutako eskola eredua lortzeko aurreraupusu handi bat da, diskriminazioa, estereotipo sexistak eta generoak eragindako hierarkiari aurre egiteko.

LOMCE-ren baitan martxan jarriko den lehenengo neurria 2014ko martxoan gauzatuko da. Hezkuntza sexuka bereizita duten Itunpeko ikastetxe pribatu batzuek, zeintzuei administrazio Hezkuntza-kalitatea hobetzeko Lege Organikoa (aurrerantzean, LOMCE) 2014ko urtarrilaren 3an sartu zen indarrean. Aurrerago aipatu Hezkuntzari buruzko Lege Organikoa partzialki aldatzera dator, bestek beste, berdintasuna kolokan jarriko dituen hainbat aldaketa gauzatzen ditu.

LOMCE legearen kontra gizarte eragile zabal bat azaldu da. Batetik, hezkuntza komunitatea bera, eta bestetik, talde feminista, sindikatu zein oposizioko alderdi politikoak aurka agertu dira. Azkenean, Diputatuen Kongresuak LOMCE onartu zuen 2013ko azaroaren 28an, PP alderdi politikoaren babes bakarrarekin. Autonomi batzuek kontzertua bertan behera utzi zieten, edota eskola unitateak gutxitu, berriro kontzertua hitzartzeko aukera izango dute (eskaera hau legea indarrean sartu eta bi hilabeteko epea egin dezakete) hau da, 2014ko martxoa hasieran). Neurri hau Senatuak LOMCE izapidetu behar zuenean onartu zen, PPk onartu baitzuen UPN-k aurkeztutako zuzenketa/aldaketa hori.

Neurri hori posible da LOMCEk Hezkuntzari buruzko 84.3 artikulua aldatu duelako. Artikulu honek xedatzen du *“Hezkuntza-administrazioek ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzerakoan ez dela diskriminaziorik izango honako arrazoi hauengatik: jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, iritzia, edota beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal edo sozial”* baina LOMCEk egindako aldaketa dela eta, espresuki gaineratzen du *ikasleak onartzea edota hezkuntza sexuka bereizita ez dela diskriminatzailea, beti ere ikastetxe horiek eskaintzen duten hezkuntza UNESCOren Konferentzia Orokorrak 1960ko abenduaren 14an hartutako Hezkuntzaren arloan bereizkeriak egitearen aurkako borrokari buruzko Konbentzioa errespetatzen badu.*

Halaber, gaineratzen du hezkuntza sexuka bereizteak ez du ekarriko familientzat, ikasleentzat eta ikastetxeentzat tratatu ezberdina edota oztopo bat Hezkuntza Administrazioarekin hitzartu beharreko kontzertuetan edota bestelako arloetan.

Bestalde, LOMCE-k jasotzen du, hemendik aurrera, Erlijioa irakasgaia batez besteko nota kalkulatzeko erabiliko dela. Irakasgai horren bidez transmititzen diren baloreek familia tradizionala, meneko jarrera eta abortoaren aurkakoak dira. Helburua da emakumea bere rol traidizionalera bueltatzea, etxera, eta finean, horrek ekarriko du meneko genero identitatea irakastea.

Azkenik, Filosofia irakasgaiak indarra galtzen du. Horrela norbanakoaren ideiei propioen garapenean, pentsaera kritikoan eta hezkuntza integrala ez da bermatuko.

Bestalde, legeak irakasleen etengabeko prestakuntzan berdintasun-arloko etengabeko prestakuntza sartu beharko dela aurreikusten du. Aitzitik, irakasleen prestakuntza ez da beharrezkoa, hortaz, berdintasun-arloan prestakuntza jasotzen duten irakasle kopurua oso txikia da.

Eskubideen eta aukeren berdintasuna bultzatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra sustatzeko, hezkuntzako ziklo guztietan hezkidetzaren printzipioa garatzen duten zentroek lehentasuna izango dute Hezkuntzako Legean jasotako aurreikuspenen aplikazioan.

236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa.

Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak zehaztu eta ezartzen du. Dekretu honetan Oinarrizko irakaskuntza eskubidea jasotzen da, hau da, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan . Orohar ,dekretu hau egiteko orduan kontuan hartu dira Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemari buruz egindako txostenen ondorioak ere, Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (ISEI-IVEI), Euskadiko Eskola Kontseiluak eta Arartekoak eginak.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, Heziberri 2020 plana bultzatu du, LOMCEri aurre egiteko asmoz. Heziberri egitasmoa, Espainako legearen aurrean hezkuntza proiektu propio bezala garatzeko jaio zen eta arloko eragileek lankidetzarekin osatu nahi izan da. Eusko Jaurlaritzarekin batera Kristau Eskolek, Ikastolen Elkarteak, BEI,k EIBk, Erkiden irakaskuntzak, Ikasgiltzak, AICE/IZEAk, SAREAN, BIHEk eta EHIGEk parte hartu dute prozesu honetan. Prozesu honetan hainbat eragile kanpoan gelditu dira, hala nola, langileak eta berauen ordezkariak, ikasleak eta beraien ordezkariak eta alderdi politikoak zein gizarte eragileak. Prozesu honek kritika ugari jaso ditu horien artean hauek dira aipagarrienak:Heziberri LOMCEren ildo ugari bere egin dituela, prozesua ez dela partehartzailea izan, eztabaidatu bai baina adostasunak ez direla eraiki. Heziberri egitasmoak 3 fase ditu bata eragileekin batera marko pedagogikoa, autonomia eta finantziarioaz eta eduki

curricularra adostea. Bigarren fasea 1.go fasean jasotakoarekin Dekretua, kurrikulumak zehazteaz gain sistemaren kudeaketa eta antolaketa arautuko dira. Eta hirugarren fasea Heziberri barruan garatuko den Euskal Legea.

Hezkidetzari dagokionez, LOMCE eta Heziberrirekin beste kasutan gertatzen den bezala, aurrerapausorik ez (atzerapausoak ez esatearren). Dekretu honek hitz eta asmo onak jasotzetik baino haratago ez doa. Dekretuan, Hezkidetzaren kontzeptua 17.artikuluaren jasotzen bada ere oso modu orokorrean egiten da. Eskola eredua sexuen arteko berdintasuna bermatu behar dela aipatu bai baina zehaztu gabe nola egin, ze bitarteko, ze neurri, nola ebaluatu...

2013. urtean Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak hezkuntza sisteman hezkidetzaren eta genero indarkeriaren prebentzioa lantzeko gida argitaratu zuen. Plan honek hezkuntza sistema zuen xede, zehatz-mehatz derrigorrezko hezkuntza (Lehenengo Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza), Haur Hezkuntza eta Batxilergoa, aldi honetarako: 2013-2014 ikasturtetik 2015-2016 ikasturtera. Planaren helburua transformazio-prozesua sustatzea da, eskola mistoko eredutik hezkidetzaren oinarritutako eskolaren eredura aurrera egitea, genero-indarkeriari aurrea hartzea eta, azken buruan, sexismoak eragiten duen edozein indarkeriari aurre egiten laguntzea. Horretarako garrantzia ematen dio eskola komunitate guztia prozesu horretan parte hartzea: ikasleak, irakasleak, familiak, hezkuntza-administrazioak...

Plan honen bidez ikastetxeak ekimen orokorra eta estrategikoa egitea bilatzen zen, genero indarkeriarekin loturiko hezkidetzaren, berdintasuna eta prebentzioa lantzeko. Hartara, ikuspegi horrek ikastetxeko kultura, politikak eta praktikak aintzat hartu eta gaitasun guztien ikaskuntzan integratu behar zituen; ikasleen arteko elkarrizketak, elkarrekintzak, elkartasuna, berdintasuna eta errespetua bultzatuko dituzten metodologiak laguntzarekin.

Plan honek hezkidetzaren eta genero indarkeria Hezkuntza Administrazioaren agendan sartzen du.

Horretarako, Hezkuntza Administrazioaren zerbitzu estrategikoei, besteak beste Berritzeguneei, Hezkuntza Ikuskaritzari, ISEI-IVEI Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeari eta Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzari, batez ere helburuak eta ekimenak zehazten dituen plan bat aurkeztu die. Gerora, zehaztutako planak ikastetxeetan izango du dagokion garapena eta zehaztapena.

Hau guztia aurrera eramateko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak hainbat eragilearen parte-hartzea bultzatu du: hezkuntza sistemako langileak, hezkuntza administrazio langileak, berdintasun aldeko erakundeak eta bazterkeriaren aurka lanean ari diren eragileak. Eragileak parte hartzeko bi lan talde sortu ditu: Hezkidetzaren Batzordea eta Planaren talde eragilea.

Une honetan Plana indarrean dago eta 2014tik aurrera ikasturtero deialdia egin da ikastetxe berriei planean parte hartzeko aukera emanez. Deialdia ikastetxe publiko zein itunpekoiei

zabaldu egin zaie. Oraingoz, plana indarrean dagoenetik, Hezkuntza Sailak ez du emaitzen baloraziorik egin.

Beraz, momentu honetan EAEko ikastetxeetan dauden legeak eta indarrean dauden planak kontutan hartzen baldin baditugu, aurrerapausuak eta administrazioetatik aurrerapausoak eman direla esan dezakegu, baina ez dira nahikoak izan. Dena den, guzti hori aurrera eramateko ezinbestekoa da baliabide pertsonalak, dirua inbertitzea edo aurrekontu propioa izatea eta plangintza erreal bat baitan. Administrazioa eta politikarien aldetik hitzetatik ekintzetara pasa behar direla esan behar diegu, legeak bakarrik ez dutela errealitatea aldatuko, lagunduko dute, bitartekoak baitira. Eta bestetik, ezinbestekoa da jendartean mugimendu feminista indartsu bat egotea, etengabe aldarrikapenak egiten dituen eta jendartean dauden kezkak eta ezberdintasunak aldarrikatzen dituen.